

ESKOLA LAIKOAREN ALDE

Behean sinatzen dugunok kultura, erlijio eta gizarte sentsibilitate desberdinetakoak gara, tartean sinesdunak eta sinesgabek, hezkuntzako agintariei zuzentzen diegu honako azalpen hau.

ULERTZEN DUGU:

- 1) Hezkuntzako LOE lege nagusiak, gure Autonomi Erkidegoan ere eragina duenak, finkatzen eta areagotzen du ERLIJO KATOLIKO eskola ordu gehiago emateko aukera titularitate publikoko eskola sare osoan.
- 2) Espainiako Estatuak eta Eliza Katolikoak 1976an sinatutako Akordio Orokorrak 1953an sinatutako Konkordatua berrikusten zuen, eta haiek moldatzeko 1979ko urtarrilaren 3an sinatutako Akordioa Konstituzio aurrekoak izan ziren.
- 3) Eliza Katolikoak dituen pribilegio ekonomi-fiskalak, juridikoak, sinbolikoak eta hezkuntzako horiek ez balitu, ezingo luke eskola publikoan erlijio eskolarik eman.
- 4) Agnostikoei, atoei, zergak ordaintzen dituzten sinesgabeei eta bestelako erlijio sinesmenei errespetu izateko, Estatuak beste arlotan bezala eskola sisteman ere neutrala beharko luke izan.
- 5) Konstituzioak dioen bezala, Gurtzeko askatasuna eta Konfesio gabeko Estatu batean, eskola laikoa indartu beharko litzateke, pluraltasuna babestuz, giza eskubideen alde egin, humanismoa bultzatu, integratzailea, sexismoaren aurkakoa, zientifikoa, egi bakarreko eta dogma bakoa, demokratikoa eta parte-hartzailea beharko luke izan.
- 6) Eskola orduen barruan ematen diren erlijio eskolek banaketa baino ez dute sortzen ikasgelako eguneroko funtzionamenduan, eta gurasook ditugun moral sinesmenen arabera ikasleen gela integratu beharrean, zatitu egiten da.

ESKATZEN DUGU

- Erlijio eskolak eskola ordu arruntetatik ateratzea.
- "Erlijioak" ikasgai modura giza fenomeno bezala zentzu historiko eta kultura modura aztertu dadila, ez konfesio-doktrina ikuspuntutik, eta ikasle ororentzat curriculum orokorrean txertatuta.
- Diru publikoarekin ez dadila doktrinatu erlijio bakar batean ere
- Toki publiko guztietatik erlijio sinboloak kendu daitezela.
- Vatikanoz dauden akordioak indargabetu daitezela.

	Izen/Abizenak	NAN	Sinadura
Ama			
Aita			
Tutorea			